

ARAZO-EGOERA

Izenburua: Tenporak

Arloa / Materia: Biologia eta Geologia

Maila: DBH 1

Multzoa: Eduki komunak

Testuingurua

Telebistan entzun duzu "Tenporen arabera udaberria nahiko suabe joango dela". Arantzazun bizi den apaiz batek hala iragarri du. Urtaro bakoitzaren hasieran EITBko esatariak haren bila joaten dira iragarpen baten eske.



Problema

Eskolan ikasi duzu meteorologoek hurrengo egunetarako eguraldia iragartzen dutela. Horretarako, datu asko aztertzen dituzte, oso tresna konplexuen bidez lortutakoak. Baina, telebistan ikusi duzun bezala, badaude eguraldia iragartzen dutenak hainbeste traste erabili gabe.

Ez dakizu tenporak zer diren ezta apaizak iragarpenerako zein metodo erabiltze dituen. Zuk, hori argitu nahi duzu.

Xedea

Sasi-zientzien metodoak eta zientzien metodoak bereiztea, komunikabideetan agertzen diren berriak ezagutzuz, interpretatuz eta haietan esandakoa kritikoki ikertuz.

Helburuak

- Iker daitezkeen arazoak identifikatzea.
- Interneten informazioa bilatzea.
- Eguraldiaren aldagaiak urtaro oso batean zehar kontrolatzea.
- Tresna zehatzen bidez jasotako datuak prentsan agertutako iragarpen baten datuekin konparatzea.
- Ebidentzia zientifikoak modu egokian argumentatzea.
- Zientzia eta sasi-zientzia bereiztea eta haiei buruzko iritsi propioa sortzea.

Ataza

Argudio testu bat idaztea ikastetxeko webgune edo blogean argitaratzeko. Ikasleek tenporak erabiltzen dituztenen iragarpenak eta zientifikoki jasotzen diren iragarpenak konparatuko dituzte argudio testu batean eta testua datutaulez lagunduko dute.

Jarraibideak

- Arazo egoera aurkeztuko da eta lan plana adostuko da.
- Talde-lanean honako hauek egin beharko dituzte:
 - Arazoaz hitz egin (zer dakiten, etxean zer entzun duten...)
 - Komunikabideetan (egunkariak, irratiak eta telebista-kateak) urtaro osorako egindako iragarpenak bilatu eta "iragarleek" esandakoa zehatz mehats jaso.
 - Jarraituko duten metodoa adostu.
 - Eguraldia adierazteko oinarrizko ezaugarriak zehaztu.
 - Datuak hiru hilabetetan zehar jasotzeko taulak diseinatu.
 - Gelakideen artean informazioa jasotzeko egunak banatu.
 - Ikastetxeko meteorologia estazioan egunero datuak jaso. Bestela, Euskalmetek egunero ematen dituen datuak ere jaso daitezke.
 - Datu guztiak aztertu eta ondorioak atera.
 - Tenporei buruzko argudio testu bat prestatu eta ikastetxeko blog edo webgunean jarri.
- Prozesua ebaluatuko da baita ikasitakoaren lorpena ere. (Autoebaluazioa eta koebaluazioa.